


2022

CUARESMA

PARTAIDEZTA



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO



Bat gara, compartimos camino

Cuaresma 2022 Garizuma

"Por una Iglesia sinodal: comunión, participación y misión"

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ



1. HARRERA ETA AURKEZPENA

- Partaideei ondo etorria adierazo. Geure burua aurkeztu.
- Berbaldia sinodo-senaren haritik, «Sinodo-seneko Eleizaren alde: alkartasuna, partaidetza eta misinoa». Garizuma-aldi honetan, geure alkarte izatean sakondu egin gura dogu, «Bat gara. Alkarregaz bide eginez». Lehenengo berbaldia, **partaidetzan** arreta jarritz.
- GARIZUMA-ALDIA: bizitza Jesusen erara aldatzeko bide egitea, alkarregaz “paseatzeko”, nork bere burua besteari zabaltzeko deia. Bihotz-barritzeko deia da, nork bere buruaren barrualdera begiratzeko deia, askotariko alderdietan (familiar, lanean, alkartean) alkartearen barrualdera begiratzeko deia.
- Hamar minutuko berbaldia entzungo dogu eta erdialdean geldialdia egingo dogu gogoeta-otoitz egiteko.
- Ondoren, bakarkako lana etorriko da eta, azkenik, taldean alkarriketan jardungo dogu.



2. OTOITZA, “PAULOREN GOGOETAK” ¹

Pentsatu zure alkartean, zure familiar, zure parrokian, zure alkarte erlijiosoan, eleizan, talderen batean... Beharbada hainbat zarie, baleiteke asko izatea, baina benetan, gorputz bera Kristorengan. Eta gorputz horren atal bakotxak besteentzat balio dau, alkarregaz funtzionatu ahal izateko. Bakotxak bere doeak ditu, besteen doeetatik desbardinak, Jainkoak gutako bakotxa bakar, desbardin, funtsezko egin dau-eta.

Batzuk sentiberago dira; badira hausnartu eta arazo sakonei konponbideak aurkitzeko gauza diranak; batzuk bidegabekeriaren astindua sentitu eta ahots profetiko bihurtzen dira; beste batzuk gaitasun handiagoa dabe fedea helarazoteko; badira alkartearen bihotzean dagozanak eta kanpoaldeetara joaten diranak; batzuk entzuten dakie eta besteek hitz egiten. Eta zuk? Zeuk be izango dozu zeure gaitasuna, talentua, misinoa. Baina, begira, edozein izanda be, egizu benetan, sakontasunez, irrikaz. Zure maitasuna ez daitela gerrurrezkoa izan. Borrokatu txar guztiaren aurka, apurtzen edo banatzen dauan guztiaren aurka, eta ahalegindu ona zabaltzen munduan, bizitzan, zure bidean.

Maitasunez hartu ingurukoak, eta itzi besteei zeu zaintzen, baina saiatu besteak zeure burua baino gehiago maitatzen. Ez deskuidatu dagokizun egitekoan. Eta zaindu zure barruko bizitza, espiritua su izan daiten zuregan. Zerbitzatu Jainkoa zeure bizizagaz. Itxaropenak pozik irauten lagundu deizula. Zure zerumugan arazorik egon ezker, konfiantza izan eta sendo iraun. Sarritan otoitz egin, ahaztu barik. Lagundu ezer ez daukienei. Onartu zure denpora, hitza, eremua behar dabenak. Norbaitek kritikatzan bazaitu, bedeinkatuz erantzun eta ez kritikatu. Ospatu barre egiten dabenen poza eta bat egin negarrez dagozanen atsekabeagaz. Batzuk ez hartu bestea baino hobeto. Eta ez bilatu besteak baino hobeto sentitzea. Alderantziz, pertsona apala zian.

ADAPTACIÓN DE RM 12, 5- 16, REZANDO VOY.ORG

¹ <https://www.rezandovoy.org/textos7q=comunidad>

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ



3. GARIZUMA-ALDIKO BERBALDIA

Partaidetzari buruzko bideoa ikusiko dogu

Xabier eleizbarrutiko abade moderatzailea Zornotzan. Mila San Inazio pastoral barrutiko kidea. Nagore Euskalerriko Eskautak Bizkaia mobimentukoa. Ana Rosa Zornotzako alkarteko kidea. Amaia Autonomia-Indautxu pastoral barrutiko kidea. Marili Galdakao pastoral barrutikoa. Tomi Alde Zaharra pastoral barrutikoa. Teresa Autonomia-Indautxu pastoral barrutikoa.

Bideoa ikusteko

Bideo “online” ikusi daikegu, lokalean internetera konektatzeko aukerarik badogu, edo aurretik jatsi daiteke ordenagailura eta gero erreproduzitu, nahiz eta internetera konexinorik ez izan. Kasu bietan, www.bizkeliza.org webean “bideoa jatsi” botoia “sakatzen dogunean”, ekitan gordeko da.



4. BAKARKA HAUSNARTZEKO ETA TALDEAN ALKARRIZKETAN JARDUTEKO GAIK

Galderez baliatuz, bakarka gogoeta egiteko astia emongo deutsegu eta gero ideiak batera jarri eta alkarrizketan jardungo dogu taldean.

I. zatia. Galaziarrei 3, 23-29 pasartea irakurri eta hausnartu. 28. txatla nabarmenduko dogu:

«EZ DA BEHIN HONEZKERO DIFERENTZIARIK JUDEGUAREN ETA JUDEGU EZ DANAREN ARTEAN, ESKLABOAREN ETA LIBREAREN ARTEAN, GIZONEZKOAREN ETA EMAKUMEZKOAREN ARTEAN, ZE, ZUOK GUZTIOK BAT ZARIE KRISTO JESUSENGAN» GAL 3, 28

Bateoaren bidez, danon ardura da Eleizaren jardunbidea. Galdetu deiogun geure buruari...

- Ze talentu eta gaitasun jarri neike nire alkartearen esanetara?
- Ze egiteko daukat alkartean?

Abade, profeta eta errege izatea, gure Eleizako ardurakidetasun-organoetan partaide izateko deia da. Galdetu deiogun geure buruari...

- Eta nik, zelan parte hartzen dot?
- Ze urrats, bide... zaindu behar dogu norbanakook/alkarteak, partaidetza eta ardurakidetasunean hazi ahal izateko?

II. zatia. Gotzainaren Pastoral Idazkia 2022ko Garizuma-aldirako

“GURE LEKUKO ALKARTEAK SENDOTU ETA ELEIZBARRUTIKO KIDE SENTITU GURA DOGU, EZ AMESTEN DOGUN ELEIZBARRUTIKO KIDE, EXISTITZEN DAN ETA FEDERA ESNATU GAITUAN ELEIZBARRUTIKO KIDE BAINO. IKASI DAIGUN ONARTZEN, BERE AHULEZIAK ONARTU ETA MAITATZEN, KRISTO, GAUR, BETI LEZ, AHULEZIAN EZAGUTU, BIZI ETA SENTITUKO DOGULA ULERTUZ”.

Geure buruari galdetuko deusagu...

- Zelan gaintu neike kexazko jarrera, Eleizan eta handik kanpo proposamenezko jarrera erakusteko?
- Zer egin beharko geunke edo egiteari itzi, gure alkarteak sendotzeko?

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ



5. ESKER ONA ETA AMAIERA

- Esker ona adierazo partaideei.
- Pazkora garoazan Garizuma-aldian “bide egin” eta paseatzen jarraitzeko dei egin. Etxean jarraitu daikegu hausnartzen eta otoitz egiten.
- Eskerrak emongo deusaguz Jainkoari batzarragaitik eta batera esango dogu...

ABIATZEA, BATEZ BE, NORBERE BAITATIK URTETEA DA.

GEURE BURUAREN BAITAN

GILTZAPETU GURA GAITUAN

NORBEREKOIKERIAREN KORAZA APURTZEA.

ABIATZEA, NORBERE BURUAREN INGURUAN,

GEURE BURUA MUNDUAREN ETA BIZITZAREN ERDIGUNEA BALITZ LEZ,

BUELTAK EMOTEARI IZTEA DA.

ABIATZEA, GURE MUNDU TXIKI HONEN

ARAZOEN ZIRKULUAN

HARRAPATZEN EZ IZTEA DA.

EDOZEIN IZANDA BE EUREN GARRANTZIA,

GIZADIA HANDIAGOA DA.

ETA GIZADIA ZERBITZATU BEHAR DOGU.

ABIATZEA EZ DA KILOMETROAK ETA KILOMETROAK EGITEA,

ITSASOAK ZEHARKATZEA,

EDO EGUNDOKO ABIADURA HARTZEA.

BATEZ BE, BESTEEI ZABALTZEA DA,

GEURE BURUA AGERIAN JARTEA, BESTEEN BILA JOTEA.

NORK BERE BURUA BESTE IDEIA BATZUETARA ZABALTZEA,

BAITA GURE IDEIEN AURKA DAGOZANETARA BE.

IBILTARI ONAREN TANKERA IZATEA DA.

HELDER CÁMARA, PASTORAL SJ²

² <https://pastoralsj.org/recursos/oraciones/148-partir-en-camino>